


ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK

2023ko abenduaren 8tik aurrera, egun etiketan adierazten diren aipamenez gain, **NAHITAEZKOA IZANGO DA OSAGAIEN ZERRENDA** eta **la INFORMAZIO NUTRIZIONALA** adieraztea ardoetan.

2021/2117 (EB)
Erregelamenduak ardoak etiketatzeko arauak aldatzen ditu eta nahitaezko aipamen guztiak adierazi beharko dira, 1169/2011 (EB) Erregelamenduarekin bat, zeina kontsumitzaileari emandako elikadura-informazioari buruzkoa den.

ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK

ARAU- ESPARRUA



Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko [2021/2117 \(EB\) Erregelamendua](#), honako erregelamendu hauek aldatzen dituena: 1308/2013 (EB) Erregelamendua, nekazaritza-produktuen merkatuen antolakuntza erkidea sortzen duena; 1151/2012 (EB) Erregelamendua, nekazaritza- eta elikadura-produktuen kalitate-araubideei buruzkoa; 251/2014 (EB) Erregelamendua, mahastizaintzako eta ardogintzako produktu aromatizatuen adierazpen geografikoak definitu, deskribatu, aurkeztu, etiketatu eta babesteari buruzkoa; eta 228/2013 (EB) Erregelamendua, nekazaritza-sektorean Batasuneko eskualde ultraperiferikoen aldeko berriazko neurriak ezartzen dituena.


Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2011ko urriaren 25eko [1169/2011 \(EB\) Erregelamendua](#), kontsumitzaileari emandako elikadura-informazioari buruzkoa, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 1924/2006 (EK) eta 1925/2006 (EK) Erregelamenduak aldatzen dituena eta honako hauek indargabetzen dituena: Batzordearen 87/250/CEE Zuzentaraua, Kontseiluaren 90/496/CEE Zuzentaraua, Batzordearen 1999/10/CE Zuzentaraua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/13/CE Zuzentaraua, Batzordearen 2002/67/CE eta 2008/5/CE Zuzentarauak eta Batzordearen 608/2004 (EB) Erregelamendua.

Batzordearen 2018ko urriaren 17ko [2019/33 \(EB\) Erregelamendu Delegatua](#), zeinaren bidez Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamendua osatzen den mahastizaintzako eta ardogintzako jatorri-deiturak, adierazpen geografikoak eta termino tradizionalak babesteko eskaeren, oposizio-prozeduraren, erabiltzeko murrizketen, baldintza-agiriaren aldaketan, babesa etetearen, etiketen eta aurkezpenaren arloan.

Batzordearen 2019ko martxoaren 12ko [2019/934 \(EB\) Erregelamendu Delegatua](#), Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamendua osatzen duena, maila alkoholikoa handi dezaketen mahastizaintzako eremuei, baimendutako ardogintza-praktikei, mahastizaintzako produktuen ekoizpen eta kontserbazioari aplikatu dakieken murrizketei, azpiproduktuen gutxiengo alkohol-ehunekoari eta horiek ezabatzeari eta fitxak OIV erakundearen argitaratzeari buruz.

Batzordearen 2021eko urriaren 27ko [2022/68 \(EB\) Erregelamendu Delegatua](#), zeinaren bidez [2019/934 \(EB\) Erregelamendu Delegatua](#) aldatzen den eta Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 1308/2013 (EB) Erregelamendua osatzen den baimendutako ardogintza-praktiken arloan.

ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK



ZER ARDOTAN APLIKATZEN DA?


- Ardoa
 - Hartzitze-prozesuko ardo berria
 - Likore-ardoa
 - Ardo apardunak
 - Kalitatezko ardo apardunak
 - Kalitateko ardo apardun aromatikoak
 - Ardo apardun gasifikatuak
 - Ardo pindartsuak
 - Ardo pindartsu gasifikatuak
- Mahats-muztioa
 - Partzialki hartzitutako mahats-muztioa
 - Partzialki hartzitutako mahats-muztioa (pasa bihurtutako mahatsa)
 - Mahats-muztio kontzentratua
 - Mahats-muztio kontzentratu errektifikatua
 - Pasa bihurtutako mahatsen ardoa
 - Gehiegi heldutako mahatsen ardoa
 - Ardo aromatizatua



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK



Merkaturatzen jarraitu ahal izango dira, izakinak agortu arte

Abenduaren
8a baino lehen
ekoitzitako
ardoak

Abenduaren
8a baino lehen
ekoitzitako ardo
aromatizatuak

Abenduaren 8aren
ondoren ekoitzitako ardo
aromatizatuak, horiek arautuko
dituen egintza eskuordetuak
argitaratu aurretik (otsailerako
aurreikusi da) etiketatu
badira.

ZER ESAN NAHI DU EKOITZI?

Batzordearen arabera, ardoaren kategoriaren baldintzak betetzen ditu.



Hau da, kasu hauetan:

- **ardo lasaiak:** ardoak gutxieneko alkohol-maila eta beharrezko azidotasuna lortzen dituenean (hartitze alkoholikoaren ondoren)
- **ardo apardunak:** ardoak gainpresio definitua eta alkohol-maila txikia dituenean (bigarren hartitzea metodo tradizionalarekin)
- **ardo usaintsuak:** ardoak gutxieneko alkohol-maila lortzen duenean eta alkohol edo destilatua gehitzen zaionean.

ARAU BERRIEK ESTALI GABEKO ARDOAK



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



2023ko abenduaren 8tik aurrera, indarrean dago 2021/2117 (EB) Erregelamendua, ardoak etiketatzeko arauak aldatzen dituena, eta 1169/2011 (EB) Erregelamenduan zehaztutako nahitaezko aipamen guztiak adierazi beharko dira. Beraz,

NAHITAEZ ADIERAZI BEHARKO DIRA HAUEK:

OSAGAIEN ZERREDA

Osagaien zerrendan ardoaren osagai guztiak jasoko dira, pisu handienetik txikienera.

OSAGAIAK: mahatsa, sakarosa, tiradura-likorea, espedizio-likorea (mahats-muztio kontzentratua, ardo-destilatua), azidotasun-zuzentzailea (azido laktikoa), kontserbagarria (SULFITOAK).

eta **INFORMAZIO NUTRIZIONALA**

Informazio nutrizionala taulatan jasoko da, 100 ml-ko neurritan. Energia-balioaz gain, hauen kopuruak jasoko ditu: gantzak, gantz aseak, karbohidratoak, azukreak, proteinak eta gatza.


INFORMAZIO NUTRIZIONALA

100 ml-ko

Energia-balio xx kJ/xx kcal
Gantzak.....xx g
horietatik
-gantz aseak..... xx g
Karbohidratoak..... xx g
horietatik
-azukreak..... xx g
Proteinak..... xx g
Gatza..... xx g



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN, ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE




ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK

2 aukera daude etiketan informazioa emateko:

ETIKETEN BERRIAK

1

INFORMAZIO GUZTIA ETIKETA FISIKOAN



OSAGIAK: mahatsa, sakarosa, tiradura-likorea, espedizio-likorea (mahats-muztio kontzentratua, ardo-destilatua), azidotasun-zuzentzailea (azido laktikoa), kontserbagarria (SULFITOAK).

INFORMAZIO NUTRIZIONALA


100 ml-ko

- > Energia-balio xx kJ/xx kcal
- > Gantzak.....xx g
horietatik
-gantz aseak..... xx g
- > Karbohidratoak..... xx g
horietatik
-azukreak..... xx g
- > Proteinak..... xx g
- > Gatza..... xx g



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE


ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK



2

INFORMAZIO BERRIAREN ZATI BAT ETIKETA DIGITAL BATEAN, QR KODE BATEN BIDEZ


Osagaien zerrenda eta informazio nutrizonala QR argi utzi behar die kontsumitzaileei edukia zein den, eta "osagaiak" hitza eramango du.



QR kodearen lehen helmuga-pantailak:

- Ezin du merkataritza- edo marketin-informaziorik eman
- Ezin ditu bildu eta jarraitu erabiltzaileen datuak

ETIKETEN BERRIAK



“E”

(energia-balioa)

E= xx kJ/ xx kcal (100 ml)

ENERGIA-BALIOA nahitaez adierazi beharko da etiketa fisikoan.


«E» (energia) sinboloarekin adieraz daiteke, eta, balioa, kilojoule eta kilokalorietan, **beti 100 ml-ko neurritan.**

Alergenoak: “SULFITOAK ditu”

argi utzi behar die kontsumitzaileei edukia zein den, eta "osagaiak" hitza eramango du.



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



OSAGAIEN ZERRENDA

OSAGAIA:

Honela definitzen du 1169/2011 (EB)
Erregelamenduak:
*elikadura-produktu bat ekoitzi edo
prestatzeko erabiltzen den eta
amaierako produktuan dagoen
substantzia edo produktu oro,
aromatizatzaileak,
elikadura-gehigarriak,
elikadura-entzimak edo beste
edozein osagai.*

Osagaien zerrendaren izenburuan **“osagaiak”** hitza jasoko da. Bertan jasoko dira **ARDOAREN OSAGAI GUZTIAK**, pisu handienetik txikienera (% 2tik beherakoak beste ordena batean zerrenda daitezke).

Bitarteko elektronikoko baten bidez ere jaso daiteke (merkataritza-informaziorik erakutsi eta erabiltzaileen datuak jarraitu gabe), **botilan itsatsitako etiketa batean.**

TERMINOEN ORDEZKAPENAK:

- **“Mahatsak”** erminoak erabil daitezke osagai nagusi gisa (“mahats-muztioaren” ordez), eta **“mahats-muztio kontzentratua”** “mahats-muztio kontzentratu errektifikatuaren” ordez.
- Alkohol-maila modu artifizialean handitzeko sakarosari **“azukre”** deitu ahal izango zaio.

ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK

ELIKADURA- GEHIGARRIAK



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

Osagaien zerrendan ekoizpenean erabilitako gehigarri guztiak adieraziko dira, amaierako produktuan jarraitzen badute. Gehigarriaren kategoria adierazko da gehi izena edo E zenbakia.

- Laguntzaile teknologikoak ez dira sartzen, betiere alergia-rik sortzen ez badute, eta hori adierazi beharko da etiketa fisikoan.
- Legamiak ez dira sartzen zerrendan, legamia-manoproteina izan ezik, gehigarria baita.


2022/68 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 2. koadroaren A zatiaren I. eranskinean finkatzen dira baimendutako ardogintza-konposatuak, kategoriak, izenak eta E zenbakiak, baita baldintza eta erabilera-mugak ere.



TERMINOEN ORDEZKAPENAK:

Antzekoak diren edo elkarren artean truka daitezkeen “azidotasun-erregulatzaileak” eta “egonkortzaileak” “**edukia:... eta/edo**” adierazpenarekin adieraz daitezke osagaien zerrenda, eta, ondoren, gehienez ere hiru gehigarri, gutxienez bat amaierako produktuan dagoenean.

Ontziratze-gasak ordezkari daitezke “atmosfera babeslean botilatuta” edo “**atmosfera babeslean botila daiteke**” terminoekin.

“**Tirada-likorea**” eta “**espedizio-likorea**” horrela adieraz daitezke, edo, bestela, parentesi artean osagaien zerrenda adierazita, borondatez.





Nahiz eta osagaien zerrenda bitarteko elektronikoeekin eman, **alergia edo intolerantziak sortzen dituzten substantziak etiketa fisikoan jaso behar dira.**

Alergenoak **TIPOGRAFIKOKI NABARMENDUTA EGON BEHAR DIRA ETIKETAKO OSAGIAIEN ZERRENDAN** edo, osagaien zerrenda QR kode baten bidez ematen bada, "XX dauka".

Adibidez, honako hauek erabili ahal izango dira:

"sulfitoak" edo
"sufre-dioxidoa", "arautza",
"arautza-proteina",
"oboproduktua",
"arautza-lisozima" edo
"oboalbumina"; "esnea",
"esnekiak", "esne-kaseina"
edo "esne-proteina".

Gainera, piktogramak ere erabili daitezke.



ARRAUTZA



ESNEA



SULFITOAK

Alergenoak eta lotea gainerako nahitaezko aipamenak ez diren beste ikuseremu batean joan daitezke.



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK

INFORMAZIO NUTRIZIONALA

INFORMAZIO NUTRIZIONALA taulatan jasoko da

INFORMAZIO NUTRIZIONALA

100 ml-ko

Energia-balio xx kJ/xx kcal

Gantzak.....xx g
horietatik

-gantz aseak..... xx g

Karbohidratoak..... xx g
horietatik

-azukreak..... xx g

Proteinak..... xx g

Gatza..... xx g

Informazio nutrizionalak honakoak jasoko ditu, **beti 100 ml-ko** neurritan:

- ENERGIA-BALIOA** kJ eta kcal-etan
- Honakoen kopuruak: **gantzak, gantz aseak, karbohidratoak, azukreak, proteinak eta gatza.**

Energia-balioa beti jasoko da etiketa fisikoan, eta "E" sinboloarekin (energia) adierazi ahal izango da.




Energia-balioa BETI jasoko da etiketa fisikoan eta "E" sinboloarekin (energia) adierazi ahal izango da.

Kopuruak 0 edo gertukoak direnean,
"Eduki hutsalak ditu..." adierazi ahal izango da.




ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK



ADIERAZI BEHARREKO BALIOAK

“BATEZ BESTEKO BALIOA” da elikadura-produktu baten nutriente-kopurua ondoen irudikatzen duena, kontuan hartuta urtaroko desberdintasunen ondoriozko tolerantziak, kontsumo-ohiturak eta balio errealak alda dezaketen beste faktore batzuk.



Adierazitako zifrak, kasuaren arabera, honako hauetatik lortutako batez besteko balioak izan beharko dira:

- Fabrikatzaileak elikagaia aztertzea.
- Erabilitako osagaien batez besteko balio ezagunak edo eraginkorrak oinarri hartuta egindako kalkulua, edo
- oro har ezarritako eta onartutako datuetatik abiatuta egindako kalkulua.



Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Eusko Fundazioa



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

ARDOAREN
ETIKETEI
BURUZKO BERRIAK

ETIKETA
ADIBIDEA



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



ERRIOXA

Babestutako Jatorrizko Izendapena

ARABAR ERRIOXA

Parra

Tenpranillo, Gracianoa

ONDUA

2008ko uzta

La Parra Bodegak SL -k botilaratua, Laguardia, Espainia

Espainiako produktua

N.R.E. 0000-VI



L4588/VI

%14 Vol.

75 cl.

SULFITOAK DITU

OSAGAIAK: mahatsa, sakarosa, tiradura-likorea, espedizio-likorea (mahats-muztio kontzentratua, ardo-destilatua), azidotasun-zuzentzailea (azido laktikoa), kontserbagarria (**SULFITOAK**).

INFORMAZIO NUTRIZIONALA

100 ml-ko

Energia-balio xx kJ/xx kcal
Gantzak.....xx g
horietatik
-gantz aseak..... xx g
Karbohidratoak..... xx g
horietatik
-azukreak..... xx g
Proteinak..... xx g
Gatza..... xx g

ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK

ETIKETA ADIBIDEA



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

ERRIOXA
Babestutako Jatorrizko Izendapena

ARABAR ERRIOXA

Parra

Tenpranillo, Gracianoa

ONDUA
2008ko uzta

La Parra Bodegak SL -k botilaratua, Laguardia, Espainia

Espainiako produktua

N.R.E. 0000-VI

L4588/VI

75 cl.

%14 Vol.

SULFITOAK DITU

E

OSAGIAK

**ARDOAREN
ETIKETEI
BURUZKO
BERRIAK**


OSAGIAK


mahatsa, sakarosa, tiradura-likorea, espedizio-likorea (mahats-muztio kontzentratua, ardo-destilatua), azidotasun-zuzentzailea (azido laktikoa), kontserbagarria (SULFITOAK).

INFORMAZIO NUTRIZIONALA

100 ml-ko

Energia-balio xxkJ/xx kcal
Gantzak	xx g
horietatik	
-gantz aseak	xx g
Karbohidratoak	xx g
horietatik	
-azukreak	xx g
Proteinak	xx g
Gatza	xx g





BALDINTZA OROKORRAK

Nahitaezko informazioa merkaturatzeko modu orotara aplikatzen da. Karaktereak 1,2 milimetrokoak edo handiagoak izango dira, eta informazioa ardoa merkaturatzeko herrialdeko hizkuntzan edo kontsumitzaileak ulertzeko hizkuntza ofizialean jasoko da.


informazioa \updownarrow 1,2 milimetrokoak




Informazioa jasotzeko sistema elektronikoak etiketa fisikoaren antzeko bermeak izan beharko ditu, informazioaren legezkotasunari, fidagarritasunari, iraupenari eta osotasunari dagokienez produktuaren bitzta baliagarri osoan zehar. QR kodeen teknologiak baldintza guztiak betetzen ditu.



ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK



BALDINTZA OROKORRAK



OSAGAIEN ZERRENDA ETA INFORMAZIO NUTRIZIONALA gainerako nahitaezko informazioaren ikuseremu berean jasoko dira.

Etiketa elektronikoa bat ematen bada, **QR kodea** gainerako nahitaezko informazioaren ikuseremu berean jasoko da.

ALERGENOAK eta **SORTA** beste ikuseremu batean jaso daitezke, nahitaezko aipamenetatik bereizita.



Kategoria jakinetarako, adieraziko da produktua desalkoholizatu den osorik edo zati batean.


DESALKOHOLIZATUTAKO PRODUKTUETAN, gutxieneko iraupen-data adierazi behar da, 10 gradu baino gutxiago badituzte.



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

ARDOAREN ETIKETEI BURUZKO BERRIAK

ETIKETA FISIKO BERRIAREN ADIBIDEA



ETIKETA BIRTUAL BERRIAREN ADIBIDEA



ETIKETA BERRIAREN ADIBIDEA



Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa



ELUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE